



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

«En el nombre de ellas»: Disney Plus-en ikusi ez duzun dokumentala

Kote Cabezudo. Gipuzkoan, eta Donostian bereziki, sona handia izan duen argazkilaria, iragan hamarraldietan modaren alorreko argazkiak egiteagatik. Jakina zen, esaterako, harekin lan egiten zuela Gipuzkoako modelo agentzia entzutetsuenak: First Models, modelo askoren harrobi. Baina Disney Plus-ek estreinatu behar zuen telesail dokumentalaren helburua argazkilarien benetako alde iluna eta bere inguruan sortu zen sare beldurgarria bistaratzea da. Izan ere, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak 28 urte eta bi hilabeteko espetxe zigorra ezarri dio aurten, hainbat delituegatik: bortxaketa bat, sexu abusu bat, haur pornografiari lotutako sei eta modeloei iruzur egiteagatik beste bi delitu. Hamazazpi emakumeren salaketak hartu dituzte kon-tuan epaiketari, eta biktime horiei 116.000 euroko kalte ordaina eman beharko die.

PROIEKTUA

2021eko abenduaren 2an, «Kote Cabezudo auziari» buruzko dokumental saioa grabatu behar zutela iragarri zuten. Disneyk, egun horretatik aurrera, erantzukizun handia hartu zuen Kote Cabezudoren biktimekiko. Izan ere, ausardia hori «sartu» nahian, Cabezudoren biktimek beren kalbarioa kamera aurrean azaltzeko erabaki irmoa hartu zuten,

Zer ari da gertatzen Kote Cabezudoren auziari buruzko dokumentalarekin? Orain aste batzuk, Disney+ plataformak «Kote Cabezudo auziari» buruzko dokumental saioa estreinatu behar zuela iragarri zuen, azaroaren 23an zehazki. Egun hori iritsi zenean ordea, dokumentalaren arrastorik ez, eta are okerrago, erabateko isiltasuna. Disney-k ez du argitu zergatik atzeratu duen estreinaldia. Aitortu dute estreinaldia ez dela egin, baina esan dute ezin dutela beste argibiderik eman. Madrilgo egunkari baten arabera, ordea, «datozen egunotan» egingo dute estreinaldia, eta Sr Mono ekoiztetxeko kide batek «arazo operatiboak» aipatu ditu.



eta prozesu mingarria berriro ere igarotzeko konpromisoa. Estreinaldi ofiziala gauzatu ez den arren dokumental sorta ikusteko aukera izan dut, kazetari/kritikariorik lehenago pasatzen baitzizkigute online ikusteko estekak, estreinatzen direnerako kritikak prest izateko. Kasu honetan, ordea, paradoxikoa izaten ari da guz-

tia, oso gutxi batzuk jada ikusi dugulako, baina ez dakigulako gainerakoek noiz, nola eta batez ere zehazki zer ikusiko duzun. «Zer» aipatzen dut, susmoa daukadalako agian guk ikusi dugun muntaia eta benetan estreinatuko dena desberdinak izango direna. Berriro diot susmoa besterik ez dela.

«EN EL NOMBRE DE ELLAS»

«En el nombre de ellas», hori da lau atalez osaturiko telesail dokumental honen izenburua. Aitortuko dizut gaia hain garrantzitsua, hunkigarria eta latza izanik, ezinezkoa zaidala ikuspegi zinematografiko hutsetik aztertzea. Zertzelada soil batzuk aipatze aldera, forma aldetik nahiko lan sinplea

iruditutako zaidala esango dizuet: etengabe errepikatzen diren birsortze sekuentziak, non Kote Cabezudo gorpuzten duen aktore bat ikusten dugun une oro; inolako ekarpenik egiten ez duten, topikoz josiriko eta oso doakoak iruditutako zaidan sekuentziak –esku pilotan jokatzen ari diren emakumeak edo arraunean adibidez–; kamera geldoan eta off ahots errepikakor batez lagundurik behin eta berriz txertatu dituzten uneak... Baina esan dizuedan moduan, ez da bidezkoa lan hau ikuspegi horretatik aztertzea. Gaiaren garrantzia, kasua mundu guztiak ezagutzeko premia eta behingoz merezi duen oihartzun mediatikoa jasotzea baita une honetan garrantzitsua iruditzen zaidan bakarra.

Lau ataletan eta testigantza ugariz lagunduta –hemen ere, zalantzarik iruditzen zait batzuk aukeratu izana–, kasuaren eta trama konplexu honen nondik norakoak ezagutuko ditugu. Trama konplexua diot, argazkilariak buruturiko ekin-tza beldurgarri eta nazkagarri horien atzean, ustez, hauei sostengua ematen zien sarea baitzegoen. Sare horren barruan donostiar elitearen barruan kokatzen diren izen ugari aipatzen ditu dokumentalak; politikariak, enpresariak, kazetariak eta abar. Horien artean gainera, antolatzen ziren festa pribatuen baitan, esplizituki Cabezudoren sexu erasoetan zuzenean parte hartu zuten pertsonak. Oso hunkitua amai-

tu dut telesaila ikusten, eta ezi-
nezkoa zait barnean dudana
amorrua, haserrea, harridura
eta tristura lerro hauen bidez
islatzea. Espero eta nahi dudana
bakarra da Disneyk estreina-
tzea, kasua mundu guztiak
ezagutzea eta behingoz merezi
duen oihartzun mediatikoa ja-
sotzea.

Preso dago Cabezudo 2018ko
udaberritik. Epaiaketa aurten
egin dute, martxoaren 7tik api-
rilaren 13ra. 28 urte eta bi hila-
beteko zigorra jaso du. Proze-
dura judiziala xehe-xehe
kontatzen da saioan. Baina hau
icebergaren punta soilik dela
nabaria da oso. 8oko hamarka-
dan eta Donostian jaio naizela
kontuan izanik, “Kote Cabezudo”
izena betidanik egin zait
ezagun. Banekien argazkilari
ezagun bat zela, eta bere ingu-
ruan sortzen ziren txutxu-mu-
txuak nahiko ilunak izaten zi-
rela, baina hori zirela uste
nuen, txutxu-mutxuak. Nor-
baitek asmatu zituen oso aza-
leko hiri-kondairak. Lagunen
arteana kasua aipatzen egon
naiz egunotan, eta nire belau-
naldikoen –eta aurrekoen– ar-
tean ia denon sentsazioa an-
tzekoa izan da. «Zarataren
parte ez zarenean, isiltasuna-
ren parte zara» esaldia aipa-
tzen da “En el nombre de ellas”
lanean eta hori baliatu nahiko
nuke dokumentala irmoki go-
mendatzeko. Erabat ados nago.
Nire txikitasunetik behintzat,
ahal dudana ozenen egin dut
garrasi lan hau lau haizeetara
zabaltzeko. Isiltasunak abusua
iraunarazten baitu.

EZ ESTREINATZEKO ARRAZOIAK?

Lau atalez osaturiko dokumen-
tala ikusi ostean, eta bertan
kontatzen direnak ikusita, ez
ninduke harrituko lan hau se-
kula ez estreinatzeke ahalegin
guztiak egiten ari den/diren
pertsona ugari egotea. Ala



Alboko orrialdean,
Cabezudoren kasuaren
inguruko epaiaketaren
atarian egindako protesta.

Andoni CANELLADA | FOKU

Lerro hauen alboan, Kote
Cabezudo bera 2018. urtean,
epaiaketa batetik
ateratzerakoan. Orain
kartzelan dago.

Juan Carlos RUIZ | FOKU

behintzat testigantza edo epai-
tegiko aitortza bideo batzuetan
kontatzen direnak moztea. Sr
Mono ekoiztetxeak azaldu
duen bakarra da “arazo operati-
boak” egon direla tartean eta
horregatik atzeratu dutela. Mic-
key saguaren konpainiaren ba-
rruan, inork pentsatu al du se-
gundo bakar batez Kote
Cabezudoren biktimengan ez
estreinatzeke erabakia hartu
aurretik? Argi dago ezetz, inork
ez baitu inolako argibiderik
eman.

Azaro hasieran, ordea, hona-
ko albiste eman zuten: «Mario
Diezek, Kote Cabezudo argazki-
lariaren biktimen abokatuak,
60.000 euroko kalte ordaina
eman beharko dio Ana Isabel
Perez Asenjori, kasu honetako
lehen instruktoreari, irrati eta
telebistako saio banatan, You-
tuben eta sare sozialetan bere
aurka egindako adierazpenen-
gatik».

Epaia goitik behera irakurtze-
ko aukera izan dut, eta estrei-

naldiaren atzerapenarekin zeri-
kusia izan dezakeen zerbait ate-
ra dut bertatik: testu judizialak
sareetara igotako hiru bideo
horiek Internetetik kentzera
behartzen du abokatua, eta
ohartarazten dio «ez dezala be-
rriro egin epaile kaltetuari bu-
ruzko antzeko jarduketarik». Laburbilduz, Interneten eta
medioetan oro har, abokatuak
Ana Isabel Perez Asenjoren aur-
ka mintzo den edukia ezabatu
egin behar duela, eta esanda-
koa zuzendu. “En el nombre de
ellas” dokumentalaren une as-
kotan Mario Diezek Asenjo sa-
latzen duten esaldi asko jaurti-
tzen dituela kontuan izanik,
azken muntaiarako guraizeak
zorrotz sartzen ari ote dira Dis-
neykoak? Hortxe uzten dut gal-
dera. Ezinbestekotzat jotzen
dut, estreinatzen denean –es-
treinatzen bada–, plataforma-
tik, atzerapenaren benetako
arrazoia azaltzea.

Konspirazio gehiegi ikusten
ari naizela uste duenari esan

nahi diot, 2018an, Cuernos de
Atar ekoiztetxeak beste doku-
mental bat egin zuela auziaren
inguruan, eta Mediaset komu-
nikazio taldeari saldu ziola,
baina –zer susmagarria– lau
urteren ondoren ez dutela
oraindik estreinatu ere egin
(eta ez dut uste sekula estrei-
natuko dutenik).

ISILTASUN MEDIATIKOA

Ez dakit zer den harrigarria-
goa, kasuaren inguruan beti-
danik egon den isilunea, ala
dokumentalaren estreinaldia
bertan behera utzi duten
arren, horren inguruan dago-
en erabateko isiltasuna eta in-
formaziorik eza. Google bila-
tzailean edo sarean oinarritzko
informazio bilaketa besterik
ez duzue egin behar, ohartze-
ko atzerapen honen berri ape-
nas eman dutela. Pentsa isilta-
suna zenbatekoa den,
espainiar hedabideetan albis-
tea jorratu duten gutxi horien
arteana, zer eta nire txio arrunt

bat erabili behar izan dutelako
albiste osatzeko.

(Idatzi hau argitaratzen den
unean baliteke dokumentala
estreinatu izana, oxala. Kasu
horretan goitik behera berri-
kusiko ditut lau atalak eta nik
jaso dudana materialarekin al-
deratuko dut. Berdina bada eta
informazio guztia dagoen be-
zala zabaltzen bada, askoz ho-
beto (ia) denontzat).

EGILEEK ZER DIOTE?

Egunotan dokumentalaren
egileekin solastatzeko aukera
izan dut, eta erabaki honen
atzean zer arrazoi dauden gal-
detu diedanean, «Disney-ren
erabaki baten mende dago
guztia. Zergatia azaltzeko
nahiago dugu astebete itxa-
ron», aipatu didate. «Dena den
gauza bat argi utzi nahi dugu,
ez dugula ezer berrargitaratu-
ko edo muntaian mozketarik
egingo. Zure moduan, beste
komunikabide batzuetako per-
tsonak ikusi dute jada lana,
Disneyk ontzat eman eta bida-
li zuelako. Orain aldaketak egi-
tea existitzen ez den akats bat
onartzea litzateke, eta Sr Mono
ekoiztetxeak onartuko ez di-
tuen gauzak onartzea. Ziurta-
tzen dizut dokumental hau
ikusiko dela, zinta ez delako
Disney-ren jatorrizko ekoiz-
pen bat, soilik Espainian eta
Portugalen eskuratu zituzten
eskubideak. Lanaren jabetza
intelektuala Sr Mono ekoizte-
txearena da», gaineratu dute.
«Ekoiztetxean harriduraz jaso
genuen estreinaldiaren atzera-
penaren berria».

BIKTIMENTZAT GUNEA

Kote Cabezudoren biktima ho-
rietako bat izan zara? Hemen
espazio seguru eta anonimoa
eskaintzen dute salaketa hori
egin ahal izateko: *victimasko-
tecabezudo.eu*.